# Irunero 407

Irungo euskarazko hamabostekaria

Urriak 15, 2021



2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Oiasso zure eskuetan
5 Ingurumen hezkuntza
6 Ainize Txopitea
7 Itsasoa hemen hasten da
8 Kirolak: Emakumeen Errugbi Eguna
9 Kirolak: Urgara Txingudi
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Haizea Sayar
14 iGazte
15 Agenda


## Bultzada berria errugbiari

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
- Egoitzan
- Enpresan

## ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?




1921eko urriaren 23an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte albiste ziren gertaerak biltzen ditu. Aldizkariko lehen albistean Irungo Udalak ospitalea berritzeko aurrera eramandako lanen berri ematen da. Pepitok idatzitako "Perfiles femeninos" testuaren ostean, Arkalek "Los calzoncillos del pelotari de mi pueblo" herritar askorentzat azpiko arroparen erabilera zerbait berria dela azaltzen du, izan ere, orain arte luxuzko artikulu bat baitzen. "Sicilia en el Rif" idatzian, berriz, Afrikara joandako soldaduez hitz egiten da, azken egunetako gertakarien berri emateko.

Aldizkariaren bigarren orrialdean, kirol kronikaren aurretik, Irunen kirol-zelai berri bat sortzeko beharra agerian uzten da berriro ere. Kirol kronikan, aurreko asteburuko porrotaren ostean, Real Union taldeak entrenatzeko behar handia duela azaltzen da. Jarraian, Patricio jokalariari egingo zaion omenaldiarentzat ekarpen ekonomikoak egin dituzten pertsonen zerrenda argitaratzen da. "De todo un poco" atalean hainbat albiste labur biltzen dira, horiek guztiak tranbien konpainiarekin lotutako gertakariak.

Hirugarren orrialdean, Siziliara joandako azken batailoia osatu duten pertsonen izenak zerrendatzen dira. "Notas municipales" atalean azken udal bilkuran hartutako erabakien laburpena irakur daiteke. "Ecos de Sociedad" atalean, aldiz, Irungo biztanle esanguratsuen ezkontza, jaiotza, bidaia eta bestelakoen berri ematen da. Azkenik, "Noticias" atalean, albiste laburren bitartez, erizain titulua lortu duen ospitaleko langilearen lorpena eta udal musika bandaren hurrengo kontzertua jakinarazten dira. "El Bidasoa" aldizkariaren azken orrialdea hiriko saltokien iragarkiz beterik dago.

**Argazkiak:**

**38714:** Irungo ospitalea 1904-1910 urteen artean.

**38725:** 1913ko uztailaren 13an "Topoak" izandako istripuaren ondorioz ospitaleratuak izan ziren zaurituak.

**38737:** Irungo ospitaleko operazio gela 1903-1904.

**IRUNERO**

**Erredakzioa eta maketazioa:**
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

**Administrazioa:**
Joseba Arozena

**Zuzenketa:**
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

**Publizitatea:**
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

**Diseinua eraberritzea:**
Andrea Gomez Arocena

**Inprenta:**
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Argitaratzailea:**
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943042052

**Webgunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia



# Bida-LANek kolektibo kalteberen enplegagarritasuna lagunduko du

**Irun eta Hondarribiko Udalek, Bidasoa bizirik-en bidez, bigarren urtez jarraian, Bida-LAN proiektua jarri dute abian. Proiektua Irun Ekintzako Kualifikazio eta Lan Munduratze Mahaiko eskualdeko erakundeen arteko lankidetzatik sortu da. Garapen Agentziak berak, Irungo La Sallek eta Mendibil Elkarte Pedagogikoak osatzen dute mahaia.**

Proiektuaren helburua da eskualdeko kolektibo kalteberen enplegu aukerak hobetzea. Gainera, eskualdean garatzen ari den maila anitzeko gobernantza-eredu irekian eta lankidetzakoan oinarritzen da. Azkenik, lurraldeko ekonomiarekin, prestakuntzarekin eta enpleguarekin zerikusia duten eragileen parte-hartzean oinarritzen da.

"Bidasoa eskualdeak erronka handia du enpleguarekin, are gehiago gaur egun, osasun-alarmak eragindako egoera dela eta. Eta erronka handi horren barruan arazo larriagoa dago: zaurgarriak diren eta, beraz, lana eskuratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatuan sartzea. Bidasoa bizirik-ek urteak daramatza pertsona horiei lana bilatzen laguntzeko lanean, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako prestakuntza, laguntza eta programen bidez", esan du Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko presidenteak.

Ildo beretik, María Serrano Garapen Agentziako lehendakariordeak adierazi du Bida-LAN pentsatuta dagoela "lan-merkatutik urrunen dauden edo sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, adibidez, kualifikaziorik gabeko gazteak, 45 urtetik gorakoak edo iraupen luzeko langabeak, laguntza ekonomikoak jasotzen dituztenak, etab. Aurreikuspenen arabera, 120 pertsonak hartuko dute parte enplegu-ekosistemaren sorkuntzan eta ibilbide pertsonalizatuen garapenean, hau da, lehen edizioan baino bi aldiz gehiago".

**Bida-Lan lau jarduketatan garatuko da**

Lau jarduketatan zehazten da Bida-LAN. Batetik, ibilbide profesionalak garatzeko lehen prozesu pertsonalizatua, malgua eta moldakorra, pertsonen ezaugarri eta inguruabarrekin bat datozen ibilbideak diseinatu ahal izateko. Bigarren jarduera aktibazio eta produktibitate pertsonaleko prozesu bati dagokio, non parte-hartzaile bakoitzak bere gaitasun pertsonalak eta digitalak garatuko dituen.

Hirugarren jarduera urriaren 14an hasiko da, eta honako arlo hauetan emango du prestakuntza: oinarrizko ostatu-teknikak, eraikuntzako laneko arriskuen prebentzioa, bizikleta-mekanika, arrandegiko arreta eta salmenta eta 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria kargak manipulatzeko eta ehungintzako eta larrugintzako konponketak eta egokitzapenak egiteko. Azkenik, lan-merkatuarekin lotzeko fase bat egongo da, non enpresako prestakuntza-prozesuak eta enplegu-azokak antolatuko diren.

Lehen bi jarduerak Bidasoa bizirik-eko egoitzetan egingo dira eta, prestakuntza-fasean, Irungo La Salle eta Mendibil Elkarte Pedagogikoak elkarlanean arituko dira.

Nabarmendu behar da, azkenik, Bida-LAN 2021 proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoen Departamentuak diruz laguntzen duela, Elkar-ekin Lanean "enplegua sustatzeko eta laneratzeko" laguntzak emateko 2021ko ekitaldiko deialdiaren bidez. Informazio gehiago nahi duenak Bidasoa bizirik-era deitu (943 509625) edo elespazio@bidasoa-activa.com helbidera email bat bidal dezake.

# Nayáde abesbatzak kontzertua eskainiko du urriaren 23an Bularreko Minbiziaren aurka

**Nayáde abesbatzak kontzertua eskainiko du urriaren 23an arratsaldeko 19:00etan Irungo Amaia Antzokian. Nayáde abesbatzaz gain, Belen Sierra piano jolea, Mikel Zunzundegui biolontxelista eta Ainhoa dantza Akademiak parte hartuko dute emanaldian. Hainbat diziplinen fusioa eskainiko duen emanaldia prestatu dute.**

Bularreko Minbiziaren Aurkako eguna dela-eta kontzertua antolatzea erabaki du Nayáde abesbatzak. Munduko Osasun Erakundeak urriaren 19an ospatzen du Bularreko Minbiziaren Aurkako eguna. Egun horren ospakizunaren bitartez detekzio goiztiarraren garrantziaz kontzientziatzea sustatu nahi da. Kontzertuan abesbatzak interpretatuko dituen abestiak Josune Lopezek egokitu ditu euskarara.

**Ahotsa berotzen**

Pasa den martxotik, Covid-19aren eraginagatik urtebete abestu gabe eman du Nayáde abesbatzak. Horregatik, abesbatzatik lanean jarraitzeko beste modu bat bilatzeko momentua iritsi dela ikusi dute. Izan ere, orain arte modu digitalean moldatu dira entseguak egiteko eta horrela sortu zen bideoklip bat grabatzeko ideia. Burutapena Irungo udaletxeko teknikariei azaldu zieten eta horri esker proiektuak aurrera egin du.

Kontzertua arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta emanaldiaz gozatzeko sarrera doakoa izango da. Hala ere, Amaia Kultur Zentrora sartu ahal izateko ikusleek gonbidapenak eskuratu beharko dituzte aurretik. Gonbidapenak ohiko lekuetan lortu ahalko dira, hau da, sarreren salmentarako Irungo Udalaren webgunearen bitartez edo Irungo Turismo Bulegoan. Horretaz gain, emanaldiaren egunean bertan gonbidapenak soberan egongo balira, Amaia antzokiko leihatilan banatuko liratekе.

NAYADE ABESBATZA

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

# ONCEko afiliatuek usaimenaren, ukimenaren eta entzumenaren bidez ezagutu dute Oiasso museoa

**Ikusmena izan ohi da museo baten bisitan gehien erabilitako zentzumena. Irailaren 29an, ordea, ONCE elkarteko afiliatuek Oiasso museoa usaimena, ukimena eta entzumena erabiliz ezagutzeko aukera izan zuten.**

Ekintzak "Oiasso zure eskuetan" izena du eta horren bitartez Oiasso Erromatar Museoak Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartu du. Europako Kontseiluak martxan jarritako ekimena da, ondarearen balioa azpimarratu, herritarrak ondarera erakarri eta ondarea kontserbatzearen garrantziaz kontzientziatzeko. Juanjo Jiménez, Oiasso Museoko zuzendariak azaldu duenez, "museoaren helburua Oiassorekin zerikusia duen ondare historiko eta kulturala publiko guztiei zabaltzea da".

ONCEko bisitariek museoaren bilduma iraunkorra ikusteko aukera izan dute. Oiasso barnean egindako ibilbidea egokitu egin dute ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat. Itxaso Bikuña Oiasso museoko hezkuntza jardueren arduraduna izan da bisita gidatuan zehar taldea zuzendu duen gidaria. Bikuñak azaldu duenez, "bisitaren helburua Oiasso ezagutzea da" eta bisitariek Irunen aurkitutako aztarna arkeologikoak ezagutzeko aukera izan dute. Denboran atzera egiten hasteko, Portu aretoko bideoaren azalpenak entzun dituzte erromatar garaiko ohiturak eta bizimodua hobeto ezagutzeko.

Portu aretotik atera aurretik, ONCEko bisitariek hainbat objekturen erreplikak ukitzeko aukera izan dute. Beren eskuekin ukitu dituzte "terra sigillata" izenez ezagutzen diren zeramika piezak eta beirazko piezak, "denario" deituriko txanponez gainera. Horretaz gain, Higer lurmuturrean aurkitutako Isis, Minerva, Helios eta Marte jainko eta jainkosen apaingarriak erakutsi zaizkie bisitariei eta txundituta geratu dira pieza horien pisuarekin, brontzezkoak baitira.

Ukimenaz gainera, usaimena ere funtsezkoa izan da bisita gidatuaren ildoa jarraitzeko. Izan ere, Itxaso Bikuñak banan-banan bisitarien sudurretara hainbat katilu hurbildu ditu erromatarrek erabiltzen zituzten saltsa eta ongailuen osagaiak asma zitzaten. Bakoitzak bere usteak ozenean esan ditu, taldekideei lagunduz eta, azkenean, taldea gai izan da osagaien artean, adibidez, oreganoa eta oliba beltza hautemateko.

Ibilbidean Andrearriaga bezalako hilarrien formak eta erliebeak eskuen bitartez deskubritzeko aukera izan dute. Bisita amaitu aurretik, Oiasso maketa inguratu eta haztatu dute, erromatar garaian Irunek nolako itxura zuen jakiteko. Izan ere, maketak agerian uzten du nolako garrantzia zeukan garai hartan itsasoak hiriak ezartzeko unean. Gainera, egurrezko erreprodukzioak Ama Shantalen baselizaren, termen edo portuaren kokapena erakusten du eta hiria osatzen zuten eraikinak eta zuhaitzak nolakoak ziren jakin daiteke.

> **"Bisita oso bitxia izan da eta esperientzia itzela iruditu zait"**
>
> Beatriz Noceda, ONCEko kidea

> **"Piezak ukitzea, saltsak usaintzea eta dokumentala entzutea asko gustatu zait"**
>
> Cristino Burgoa, ONCEko kidea

**Kultura irisgarria**

Ondarearen Europako Jardunaldien aurtengo edizioaren leloa 'Ondare inklusiboa' izan da, ondarea herritarrengana hurbiltzeko modua berraztertzeko eta zabaltzeko proposamena. Roberto Doval ONCEk Donostian duen ordezkaritzako zuzendariaren ustez oso garrantzitsuak dira inklusioaren eta irisgarritasunaren gisako kontzeptuak. Donostiako ONCEko zuzendariaren iritzi, "ONCE eta antzeko elkarteek ordezkatzen dituzten gizarte-taldeen integrazioa eta normalizazioa lortzeko ezinbesteko tresna da kultura". Horrela, Donostiako egoitzara afiliatutako beste hamabi bisitariekin batera museoak eskainitako baliabide historiko eta kulturalez gozatzeko aukera izan du Dovalek. Horretaz gain, baliabide irisgarrien eta interaktiboen beharra ere gogoratu du Dovalek, "baliabide horiei esker lehen mailako herritarrak garela senti dezakegu, beste edozein pertsona bezala".

Juanjo Jiménez Oiasso Museoko zuzendariak gogoratu du sorreratik museoaren helburuetako bat irisgarritasuna izan dela, instalazioak hobetzeko eta ahalik eta jende gehienarentzat eskuragarri bihurtzeko orduan kontuan hartu baita. Oiassoko zuzendariak adierazi duenez, "kolektibo horiei guztiei Irunen dugun erromatar garaiko ondarea hurbildu nahi diegu". Itxaso Bikuña museoko hezkuntza jardueren arduradunak gogoratu duenez, 2009. urtean Europako Museo onenen izendapenen artean egon zen Oiasso, besteak beste, irisgarritasun irizpideak zaintzeagatik. Dagoeneko Oiassok museoaren aretoetako informazioa braillez irakurtzeko aukera eskaintzen du euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez. Dena den, Juanjo Jiménezek aurreratu duenez, "guztion artean kulturaren erabateko irisgarritasuna lortzeko lanean jarraituko dugu".

**Liluratutako bisitariak**

Beatriz Nocedak "Oiasso zure eskuetan" jardunaldiari esker lehen aldiz bisitatu du Irungo museoa. Esperientziaren inguruan galdetuta, "bisita oso bitxia izan da eta esperientzia itzela iruditu zait" adierazi du ONCEko kideak. Beatriz Nocedaren hitzetan, "zoragarria iruditzen zait nola eboluzionatu dugun ezagutu ahal izatea edo beste alderdi batzuen bilakaeran hainbeste aldatu ez garela ikustea". Museoko piezen kopiak hartu eta ukitu ahal izatea oso esperientzia aberasgarria izan dela azaldu du, "sentsazioak bilatzeko" aukera eman diotelako. "Ez nuen espero Irunen hain polita den zerbait genuenik, beraz, uste dut merezi duela mundu guztiak museoa bisitatzea", gaineratu du Beatriz Nocedak.

Cristino Burgoarentzat, aldiz, ez da izan museora egin duen lehen bisita, baina jardunaldia "asko" gustatu zaiola azaldu du. Cristinok, oro har, historia gustuko duela azaldu du eta erromatar garaikoa, bereziki, interesgarria iruditzen zaiola adierazi du. "Historia bizi naizen hiriarekin lotuta badago, are gehiago interesatzen zait" onartu du irundarrak. Oiassora egindako aurreko bisitekin alderatuta, Cristino Burgoak azaldu du azken hau bereziagoa izan dela, ukimenaren bitartez gauza berriak ezagutzeko aukera izan baitute. "Piezak ukitzea, saltsak usaintzea eta dokumentala entzutea asko gustatu zait", gehitu du historiazaleak.

**Oiasso ezagutzen**

Bestetik, "Oiasso ezagutzen" jarduera asteazkenero eta ostiralero egingo da urrian, museoan. Beste leku batzuetatik etorri berriak diren eta hizkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak hartzen dituzten ikastetxeei zuzendutako jarduera da. Gainera, laborategiko arkeologia eta ikerketako tailer bat egingo da.

# Ingurumen hezkuntzaren lanketa hiriko ikastetxeetan hasten da

**Ingurumen hezkuntzaren lanketa hiriko ikastetxeetan hasten da. Ildo horretatik, Txingudiko Zerbitzuakkonpainiak, ikastetxeen lankidetzarekin, ikasturte honetan zehar landuko den jasangarritasunerako hezkuntza eskaintza aurkeztu du. Urtero moduan hainbat jarduera proposatuko dizkie zerbitzuen erakundeak eskualdeko heziketa zentroei eta aurten ere ekintza berriak batu dira programara.**

Leire Zubitur Txingudiko Zerbitzuetako gerentearen hitzetan garrantzitsua da belaunaldi berriak baliabide naturalen kudeaketa egokiaren inguruan sentsibilizatzea. Txingudiko Zerbitzuen gerenteak azaldu duenez, "urtez urte, eskola-bizitzako etapa desberdinetara egokitutako ikastaro sorta zabal bat eskaintzen jarriatzen dugu". Zentzu horretan, Leire Zubiturrek azpimarratu du urtetik urtera tailerren eskaintza erakargarriago egiteko asmoarekin, berrikuntza ahalegin handia egiten dela. Horren adibide dira aurreko urtean estreinatu ziren Escape Hall eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) tailerrak.

Aurtengo ikasturtean gainera, Covid-19aren aurkako neurriak murriztu ostean, tailerrak aurrez aurreko formatuan itzuliko dira ikastetxeetara. Era berean, Txingudiko Zerbitzuen instalazioak bisitatzeko aukera eskainiko da berriro. Izan ere, aurreko ikasturteetan pandemiaren eraginez ikastaroak online eskaini ziren eta hala egiten jarraituko da formatu hori nahiago duten ikastetxeentzat.

Tailer eskaintza berriaren aurkezpena Irungo Elatzeta ikastetxean egin da. Elatzetak aktiboki parte hartzen du Txingudiko Zerbitzuek antolatutako hainbat ikastarotan. Marga Zinkunegi Elatzeta ikastetxeko zuzendariak zentroaren esperientziaren berri eman du: "Iaz Zisare programan parte hartu genuen eta ikasleak hasieratik bukaerara ezagutu ahal izan dute autokonpostatze sistema".

**Ikasleei egokitutako tailerrak**

Guztira, ikastetxeek Txingudiko Zerbitzuek prestatutako 6 tailer izango dituzte aukeran: Uraren Ziklo Integralari buruzko tailerra, Hondakin eta Birziklapenaren tailerra, Hiri garbiketako tailerra, Energia eta Aldaketa Klimatikoaren tailerra, Uraren Bidea eta GJH Escape Hall. Horiekin batera ere, Zisare urteko programa ere eskaintzen da, konpostajearen mundura sartzeko. Eskainitako ikastaroen artean, eskualdeko ikastetxeek nahi beste tailerretan parte hartzeko aukera izango dute, hezkuntza zentro bakoitzaren programara hobekien egokitzen diren ikastaroak aukeratu ahalko dituztelarik.

Leire Zubiturrek azaldu duenez, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako 2021-2022 ikasturteko eskaintzak urarekin, energiarekin, hondakinekin edo hiri-garbiketarekin zerikusia duten tailerrak biltzen ditu. Bigarren Zikloko eta Batxilergoko ikasleentzat, berriz, Espace Hall GJHen tailerra egokitu da, jolas parte-hartzailea eta sortzailea, moda-modako baliabide bat dena. Tailer horren bitartez gazteei beren ekintzek ingurumenean nola eragiten duten ulertarazi nahi zaie, jarreren inguruan ausnartzeko. Txingudiko Zerbitzuen gerenteak azaldu duenez, askotan ekonomia zirkularraz edo kontsumo jasangarriaren "garrantziaz" hitz egiten da, baina ez da hain erraza ulertzea hitz polit horien atzean ezkutatzen den esanahia".

**Zisare programa**

Zisare programaren helburua ikasleei konpostatze prozedurak zertan datzan erakustea da. Zisare egitasmoan parte hartzen duten ikastetxeek konposta sortzen dute ikastetxean sortutako biohondakinak aprobetxatuz. Aurreko ikasturtean zehar Elatzetak Zisare programa ikastetxean martxan jarri zuen eta ikasleei egitasmoan era boluntarioan parte hartzeko aukera eskaini zitzaien. Marga Zinkunegik, zentroko zuzendariak, esperientzia oso positiboa izan dela baieztatu du, ikasleak materia organikoa bereiztearen garrantziaz jabetu dira, konpostaren bidez ongarria sor daitekeela ulertzeaz gain. "Ikasleek, gainera, primeran pasatu dute eta esperientziaz gozatu dutela uste dugu", gaineratu du Elatzetako zuzendariak.

Urte bateko froga nahikoa izan da proiektuak duen garrantzia ulertzeko, eta hala, ikasturte honetan Zisare programa hezkuntza curriculumean txertatzea erabaki dute. Horrela, ikasle guztiek proiektuan parte hartzeko aukera izango dute. Aurreko ikasturtean 6. mailako ikasleek parte hartu zuten Zisare programan baina aurten lanketa 5. mailako ikasleekin egitea adostu dute. Marga Zinkunegik adierazi duenez, proiektuaren "xarma" konpostaje prozesu osoaren jarraipena egitea da eta hustuketa hurrengo ikasturte hasieran egiten denerako 6. mailakoak ziren ikasleak jada ez dira eskolan egongo. Elatzeta eskolako ikasleek azaldu dutenez, "ikasle talde bat patioan zein jangelan sortutako hondakinak bildu eta konpostagailura eramateaz arduratzen da".

Hasiera batean Elatzetan euskararen erabilera sustatzeko ideiarekin abiatu zuten egitasmoa eta joan den urtean ikusi ahal izan dute proiektuak eremu askoz gehiago hartzen dituela. Autokonpostatze sistemaren bitartez hainbat ikasgaietan ikasitakoak praktikatzen jartzeko aukera dute. Neurketak egiteko matematikako eragiketak erabiltzen dituzte, natur zientzietako kontuak praktikan ikusteko aukera dute, ingelesean ikasitakoa konpostagailuaren jarraibideak ulertzeko erabiltzen dute... eta hori guztia ariketa fisikoa eginez Elatzeta ikastetxearen ingurunean disfrutatzen duten bitartean. Horrela, eduki akademikoaz gainera, haurrek beste balore asko barneratzen dituzte: ardurak dakartzan erantzukizunak, talde lanaren garrantzia edo taldeekin lan egitean txanda errespetatzeko beharra.

Txingudiko Zerbitzuetako Leire Zubiturrek gehitu duenez, "eskualdean modu jasangarrian bizi nahi badugu, txikitatik horri buruz hitz egin behar diegula uste dut". Leire Zubiturrek Irungo eta Hondarribiko ikastetxe guztiei egitasmoan parte hartzeko deia egin die. Era berean, ikasturtean zehar ikastetxeek Txingudiko Zerbitzuetako instalakuntzak, edateko uren araztegia eta hondakin uren araztegia bisitatzeko aukera izango dute.

ESTUDIO FOTOGRAFICO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Ainize Txopitea, artista:

# “Atsegin dut kanpotik nire lana aitaren obren alboan ikustea”

**“Destinia” erakusketa azaroaren 21era arte bisitatu ahalko da Irungo Menchu Gal erakusketa Aretoan. Bertan Daniel eta Ainize Txopitea aita-alabaren lanak ikusgai daude, guztira, 60 obrez osatutako erakusketa batean. Bisita egiteko aretoa zabalik egongo da ostiral eta larunbatetan 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara. Anize Txopitea komisarioak erakusketaren esanahian sakondu du.**

**Nola lortu zen Irunen erakusketa hau egiteko aukera?**
Ez da areto honetan erakusketa bat egiten dudan lehen aldia. 2018an “The time is now” erakusketa izan bainuen bertan. Aretoan ikusi daitekeen proiektuaren parte bat lantzen ari nintzen Lisboan, Irunen erakusketa egitea proposatu zidatenean. Proposamena ideiarekin bat zetorrela ikusita, aitaren lanak eta nireak erakusteko aukera eman zidaten, ni neu komisario lanez arduratu behar nintzelarik.

**Senideak izan arren, erraza da bi artisten lanak erakusketa batean bateratzea?**
Ez da lan erraza izan. Oso ezberdinak dira komisario eta artista lanak. Ez dut sormenerako nahiko nukeen adina denbora izan, komisariotza atalak denbora gehiago hartu baitit. Elkartu daitezke, noski, baina ez da erraza niretzat.

**Berezia izan behar du aitaren lanen alboan zureak ikusteak, ezta?**
Bai. Gainera, lehen aldiz sartu ditut erakusketa-panoramikaren argazkiak katalogoaren barruan, paisaia hori bi puntuetatik ikusteko leiho bat ireki nahi bainuen. Kanpotik eta paperean ikusteko aukera eman dit horrek. Bien arteko lehen erakusketa den arren, nire aitaren azken sorkuntzaldiko lanak aukeratu ditut, nire azken sortze-fasearekin bat baitatoz. Biak plano horizontalean jarri nahi nituen, eta Menchu Gal aretoa oso egokia da, sarreratik bi giroak bereizten baitira. Diskurtso desberdinak dira, baina dena batzen duen keinua dago. Menchu Gal aretoan egiteak esanahi berezia du zuretzat? Bai, nire aitak Menchu Gal ezagutu zuelako. Altxerri galeriako zuzendari gisa lan egin zuen hainbat urtez, eta iruditzen zait bere lanak erakustera iritsi zela, nahiz eta datu hori bere galeria curriculumean kontsultatu beharko nukeen. Hala ere, ziur nago harremana izan zutela. Oso polita iruditzen zait urte batzuk geroago bi pertsona hauen bidea berriro elkartzea, zalantzarik gabe patuaren kontua da.

**Zer esanahi ezkuntatzen du “Destinia” izenburuak?**
Halabeharrez, Destinia bidaia-agentzia baten izena da, eta oso izen aproposa iruditzen zait, niretzat erakusketa bat bidaia bat bezalakoa baita. Horretaz gain, erakusketa hain biografiko eta pertsonala izanik, oso ibilbide zabala egiten du. Maila politikoan patuak beti izan du izen maskulinoa gaztelaniaz, DESTINO, eta hitzaren amaieran A letra sartzeak puntu femeninoagoa ematen dio, eta, horren ondorioz, hizkuntza inklusiboagoa da.

**Erakusketa osatzen duten 60 lanen artean, obra kuttunik baduzu?**
Oso zaila da obra bakarra aukeratzea, denek baitute beren historia. Kasu honetan, hiru sail desberdinetan lan egin dut: “Sostenibles en el tiempo”, “Ellas, pasado y futuro” eta “Destinia”. Bakarra aukeratzea zailegia denez, multzo horien tartean dagoen bat aipatuko dut, hau da, emakume liburu-saltzaileei egindako omenaldia.

**Erakusketako lanek zure obraren eta aurretik aitak egindako lanaren arteko lotura erakusten dute. Zergatik jarraitu dituzu bere pausoak?**
Boomerang efektua izan zen. Beti izan da gehiago collagea edo teknika mistoa, baina noizean behin gustatzen zait nire baitatik irtetea eta argazkiak ateratzea. Nire eskuei buruzko ikerketa bat egin nuen autorretratua lantzean eta Destinia planeatzean konturatu nintzen aitak aldez aurretik landu zuen zerbait lantzen ari nintzela. Bi espazioak lotzen dituen ate hori aprobetxatu nahi izan nuen bi mundu eta belaunaldi horiek lotzeko, esku-talka bat eginez, gure arteko keinu tipiko bat eginez.

**Belaunaldiz belaunaldiko esposizioa denez, uste duzu horrek balioa gehitzen diola erakusketari?**
Nik uste dut baietz, arrazoi desberdinengatik. Lehenik eta behin, antzekotasunak baino ezberdintasun gehiago ikusten direlako. Bigarrenik, konturatzen garelako artista maskulino eta femeninoen lanak oso ondo funtzionatzen dutela. Gainera, artea denboraz kanpokoa dela konturatzeko balio du, eta esanahi bat ematen badiozu, erraza da obrek elkarren artean hitz egitea. Atsegin dut kanpotik nire lana aitaren obren alboan ikustea.

**Zein izan da publikoaren erantzuna?**
Egia esango dizut. Batzuetan jendea ez da hainbeste agertzen edo batzuetan jende gehiago edo gutxiago joaten da. Esan behar dut balorazioa oso positiboa dela, nire sentsazioarekin bat datorren zerbait. Oso pozik geratu naiz instalazio honekin, barruan nuena transmititzea lortu baitut. Esate baterako, duela egun gutxi deitu zidan batek, ikusitakoarekin oso pozik zegoela eta asko gozatu zuela esateko.

**Zer-nolako eragina izan zuen zure aitaren jarduerak zure lanbidea aukeratzerakoan?**
Egia esan, alde batetik bai, izan zuen, baina beste alde batetik ez. 18 urte eman nituen ukapen fasean, ez bainuen arteaz ezer jakin nahi, eta nahi izanez gero ez nintzen erakusketetara joaten. Hori guztia nire inguruan ni artista izateko sentitzen nuen presioaren ondorio izan zen. Inork ezagutzen ez ninduen lekuan hasi nintzen artista izaten, eta urrutira joatea erabaki nuen. Beti izan da poesia pixka bat nire bizitzan, eta hitzarekin hasi nintzen arren, gero collagearekin jarraitu nuen. Bizitza ikusteko modua aitarengandik jaso nuela uste dut, eta, zalantzarik gabe, mundu super aberats batean sartu nintzen bere lagun artistekin, eta hori beti eskertuko dut. Fisikoki bere antza dut, baina lengoaia artistikoa guztiz desberdina da.

**Zein beste proiektutan murgilduta zaude orain?**
Oso urte aktiboa da. Erakusketa kolektibo bat amaitu berri dut Nafarroako Unibertsitateko museoan, “Entorno Encuentro Exploración” topaketan. Abenduan bi lekutan aldi berean egingo den collage erakusketa batera gonbidatu naute. Nire ideia, beraz, abendura begira beste kontinente batera joatea da, nire sorkuntzan gehiago kontzentratzeko, artistentzat oso garrantzitsua baita norbere lanean murgiltzea.

# Itsasoa Irunen hasten da

**Recicla-Birziklatu ingurumenaren aldeko tokiko elkarteak, Txingudiko Zerbitzuen eta Irungo Udalaren laguntzarekin, “Itsasoa hemen hasten da. Ez bota ezer” ekimena jarri du martxan. Mundu osoan hedatutako kanpaina da eta helburua zaborra lurrera eta, bereziki, hustubideetara ez botatzea lortzea da.**

Ekimena Faisaien uhartearen parean aurkeztu da, Behobiako oinezkoen pasealekuan, eta bertan jarri da lehenengo plaka. Epe motzean, Txingudiko Zerbitzuak konpainiak gainerako plakak jarriko ditu. Leire Zubitur Txingudiko Zerbitzuetako gerenteak azaldu duenez, “kanpaina ez dugu soilik itsasoa edo ibaia ikusten den lekuetan zentratu nahi”. Beraz, Irungo auzo guztietara zabalduko den kanpaina izango da. “Ohartarazi nahi da adibidez Katea auzoan lurrera zerbait jaurtita, itsasora iristeko arrisku berbera duela, nahiz eta kostaldetik urrunago egon”, azaldu du Txingudiko Zerbitzuetako gerenteak.

Guztira, 130 plaka jarriko dira Irungo estolda-zuloen ondoan. Bereizgarriak urdinak izango dira eta leloa gaztelaniaz zein euskaraz inprimatuko da. Plaken kokapenerako zirkulazio handieneko eremuetako hustubideak aukeratuko dira. Hala nola, oinezkoentzako eremuak, ikastetxeetako irteerak, aisialdi-zentroak, etab., horiek izaten baitira gatazkatsuenak.

Borja Olazabal Irungo Garapen Iraunkorreko ordezkariak azaldu duenez, mundu mailan hedapen handia izan duen kanpaina da eta orain Irunera iritsi da. “Plaken bitartez estoldetara zakarrik ez botatzea gogoratu nahi da, gehienak itsasora iristen dira eta”. Garapen Iraunkorreko ordezkariak adierazi duenez, asmoa jendea kontzientziatzen saiatzea da. “Orain dela hilabete batzuk Recicla-Birziklatu elkarteko kideak proposamen horrekin hurbildu ziren guregana eta Txinzerrekin aurrera atera ahal izan dugu”, aipatu du Borja Olazabalek. “Honez gero jakin beharrekoa zen, baina lurrera eta estoldetara ezer bota behar ez dela gogorarazteko balio dezala”.

“Itsasoa hemen hasten da. Ez bota ezer” egitasmoa Nazio Batuetan egiten ari diren sentsibilizazio-ekintza guztien beste adibide bat da. “Jendeak jakin behar du hustubideak ez direla zakarrontziak”, azpimarratu du Leire Zubiturrek. Txingudiko Zerbitzuetako gerenteak azaldu duenez, gero eta zigarrokin gehiagok saneamendu publikoen sarean amaitzen dutela ikusten ari dira, horietako asko gero itsasora iristen direlarik. Zubiturrek aipatu duenez, “ez dugu ahaztu behar zigarroak substantzia kutsatzaile batzuk dituela, eta naturarekin kontaktuan jartzean itsasoko ekosistema kutsatzen dutela”. Era berean, Txingudiko Zerbitzuetako gerenteak Recicla-Birziklatu elkarteen lana eskertu du, “jokabide eredugarriak” bultzatzen dituzten hiritarrak oso beharrezkoak baitira gizartearen etorkizuna zaintzeko.

**Recicla-Birziklaturen egitasmoa**
Gorka Alcantarilla, Laida Rodriguez eta Roberto Serna hurbildu dira aurkezpenera Recicla-Birziklatu elkartearen izenean. Laida Rodriguezek adierazi duenez, udalera hurbiltzea erabaki zuten munduan zehar martxan den ekimen hau eskualdean abian jar zedin. Horrelako ekintzen bitartez jendeak lurrera gauzak botatzeko duen ohitura desagerraraztea lortu nahi dute Recicla-Birziklatu elkarteko kideek. Laida Rodriguezek gogoratu duenez, “Bidasoaldean gaude, itsasoz inguratuta eta ibai batek erditik zeharkatzen gaitu”.

Recicla-Birziklatu ingurumenaren aldeko tokiko elkartea da eta hainbat jarduera antolatzen ditu. Gorka Alcantarillak azaldu duenez, “elkarteko ekintza guztiak naturan, itsasoan, ibaian edo mendian antolatzen ditugu”. Recicla-Birziklatutik jendea animatu nahi dute elkarteak antolatutako egitasmoetan parte hartzera, Gorka Alcantarillak aipatu duenez, “ingurumena zaintzeko beharraz kontzientziatzeko”.

“Honekin guztiarekin gogoratu nahi dugu itsasoa bakoitzaren etxean hasten dela”, azpimarratu du Laida Rodriguezek. Era berean, lurrera zaborrik ez botatzea birziklatzea bezain garrantzitsua dela gogoratu du. Gainera, ingurumena zaintzeko bidean kontsumo ohitura jasangarriagoen alde egiteko beharra azpimarratu du Rodriguezek, egun neurrigabeko kontsumoa saihesteko hainbat eta hainbat aukera baitaude.

**Garapen Jasangarriko Helburuak**
Ekimena Nazio Batuek ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko esparruan gauzatzen diren ekintzen barruan kokatzen da. Hain zuzen ere, seigarren, hamahirugarren eta hamalaugarren helburuak barnebiltzen ditu: ur garbia eta saneamendua, klimaren aldeko ekintza eta urpeko bizitza.

**Zabor bilketa urriaren 24an**
Komunikabideen presentzia eta aukera aprobetxatuz, Recicla-Birziklatu elkarteko kideek urriaren 24an goizean zabor bilketa bat egingo dutela iragarri dute. Ordua zehazteko dago, baina goizeko 9:30etan edo 10:00etan Santiagotarrak klubaren instalazioetan elkartuko direla aurreratu dute. Helburua Bidasoa ibaia garbitzea izango da eta familiak, haurrak eta helduak gonbidatu dituzte garbiketan parte hartu dezaten. “Ekintzaren berezitasuna da bilketa egiteko kayak-ak eta padel surf taulak erabiliko direla”, azaldu du ekintzaren antolakuntzan inplikatutako Laida Rodriguezek. Izan ere, elkarteak naturaz gozatzeko filosofia du, kirol-jarduerak egiten diren bitartean. Rober Serna arduratzen da @ recicla_birziklatu Instagram kontuaren kudeaketaz eta bertan zabalduko dute bilketarekin loturiko informazio guztia. Ekintzan parte hartzeko izen-ematea Instagram kontuaren bitartez egin beharko da.

# Txingudi klubak Emakumeen Errugbi Eguna antolatuko du kirolean emakumeen presentzia aldarrikatzeko

**Txingudi errugbi klubak Emakumeen Errugbi Eguna antolatu du azaroaren 1erako. Ekintzak Plaiaundiko pistan egingo dira. Helburua errugbian ere emakumeentzako tokia dagoela aldakarrikatzea izango da, emakume gehiago kirol hau egitera animatu daitezen. Aizpea Babaze taldera itzuli berri bada ere, jardunaldiaren antolaketan inplikatuta dago eta azaroaren lehenean egingo diren ekintzen berri eman du.**

**Zergatik erabaki duzue Emakumeen Errugbi Eguna antolatzea?**
Txingudi Errugbi Klubak urte dexente daramatza emakumeen taldea sortu nahian. Orain arte ezinezkoa izan bada ere, indar apur bat dagoen bakoitzean berriro saiatzen gara.

**Jardunaldi horren atzean zer aldarrikapen ezkutatzen da?**
Emakumeek ere errugbira jokatzeko aukera izatea. Errugbian edonorentzako lekua dago eta pena da emakumeek beraientzako lekurik ez aurkitzea. Oso kirol oldarkorra dela eman dezake, baina nik uste dut errespetuz eta elegantziaz egiten den kirola dela.

**Talderik ez dagoen honetan, nola moldatzen zarete?**
14 urtera arte neska eta mutilek elkarrekin entrenatu dezakete, baina hortik aurrera ezin dute elkarrekin partidurik jokatu. Entrenatzeko aukera izan arren, neskentzat frustrazio handia da partidu eguna iristen denean zelaira ezin ateratzea. Beraz, 2 urteko hutsunea dago tartean, emakume seniorren taldean sartzeko 16 urte bete behar baitira. Gaur egun sub14an 8 neska daude eta 14 urte betetzen dituztenean talderik gabe geratuko dira. Egoera horretan asko Donostiako edo Hernaniko taldeetara joaten dira eta, ondorioz, Txingudik zeukan harrobia galtzen du. Gu geuk, berriz, errugbi touch izeneko taldea sortu dugu jokatzeko aukera izan dezagun.

**Zertan ezberdintzen da errugbi touch-a?**
Errugbiaren filosofia bera du, talde jolas bat delako. Zelai txikiago batean jokatzen da, errugbi arruntean erabili ohi den zelaiaren erdia gutxi gorabehera eta zelaian talde bakoitzean sei jokalarik jokatzen dute. Errugbi touch-en ez da plakaketarik egiten, defentsak zu ukitu behar zaitu eta orduan 7 metro atzera egin beharko dituzu. Talde mistoetan jokatzen denez, klubaren ideia da 14 eta 16 urte arteko jokalariei modalitate hori eskaintzea, behintzat errugbira jokatzen jarraitzeko aukera izan dezaten. Profesionalean taldeek hiru neska eta hiru mutil izan behar dituzte, baina adin horretan 2 neska egotearekin nahikoa dela uste dut. Horrela ez bada, aurkariari entsegu bat ematen zaio.

**Zergatik animatuko zenituzke emakumeak errugbia probatzera?**
Nik adibidez, ekipoa sortu nahi zutela jakin nuenean, klubera militante moduan sartzea erabaki nuen, eskualdean emakume talderik ez egotea ulertu ezinik. Horrela, edonorentzako lekua daukan kirol bat ezagutu nuen. Egia da ni ez naizela ez altua, ez handia eta ez bizkorregia, baina dauzkazun gaitasunen arabera beti ongi etorria zarela sentituko duzu. Batez ere, Txingudi bezalako talde batean, talderik ez egon arren, gustura asko errugbira jokatzen irakatsiko dizute. Kirol zaila da, arau guztiak barneratzeko bi edo hiru urte behar baitira. Horretaz gain, errugbian hirugarren denbora dago. Horrek esan nahi du, zelaian kontaktuzko kirola izan arren, partidu ostean aurkariarekin elkartu, zerbait hartzen den bitartean lagunak egiteko eta jokaldiak komentatzeko aukera dagoela. Azken batean, hirugarren denborak taldea indartzeko aukera ematen du.

**Zer prestatu duzue Emakumeen Errugbi Egunerako?**
Ideia zera da, taldeko kide bakoitzak azaroaren 1ean ospatuko dugun Emakumeen Errugbi Egunera bere inguruko emakume bat gonbidatzea. Egun horretan Plaiaundiko pistetara hurbiltzen diren neska eta emakumeei jolasen bitartez errugbia zer den eta nola jokatzen den azaltzen saiatuko gara. Jolasez gainera, partidu sinpleren bat egiteko asmoa ere badugu, baina plakaketarik gabe, noski. Bestetik, bazkari bat ere antolatuko dugu, elkar ezagutzeko aukera izan dezagun.

**Aurretiko izen ematerik egin behar da azaroaren 1eko jardunaldian parte hartzeko?**
Egia esan, oraindik ez dugu guztiz argi jardunaldia nola antolatuko dugun. Bazkarirako behintzat nolabaiteko izen ematea eskatuko dugula badakigu, otordua behar den moduan antolatzeko. Dena den, datozen egun eta asteetan zehar klubak sare sozialetan dauzkan kontuen bitartez informazioa zabaltzen jarraituko dugu.

**Ekimena aurkeztuta, jendea jardunaldian parte hartzeko gogotsu dago?**
Uste dut klubean antolatzen den edozein jarduerak, dena delakoa izanda ere, beti harrera ona izan ohi duela. Egitasmoaren oinarria taldea elkartzea eta kluba indartzea da. Klubak nesken ekipoa izan nahi du. Bere garaian emakume taldea egon zen eta hori berreskuratu nahiko genuke.

**Kirolaz gainera, errugbiak hainbat talde balio lantzeko aukera ematen du?**
Bai, hori da. Errespetua oinarrian dago beti. Esaterako, inork ezin dio arbitroari ezer esan, beraz, kapitainak hitz egin dezake bakarrik berarekin, beti jokamolde fina mantenduz. Zelaian kolpeka ibili arren, aurkari bat lurrera bota ostean, beti lurretik altxatzeko eskua eskaintzen diogu elkarri.

**Txingudi klubak emakumeak erakartzeko beste ekimenik abiatuko du?**
Momentuz ez da horrelakorik planteatu. Klubera emakumeak erakartzen jarraitzeko asmo horri eutsiko zaio noski, jendea gutxienez entrenatzen hastera animatu dadin. Ekintza zehatzik egin ez arren, argi dago kirol ibilbidea sub14an amaitzen duten neskentzako irtenbide bat bilatu beharko dela. Garrantzitsuena nesken artean taldea egitea da. Behin taldea izanda errazagoa izango da pixkanaka jendea batzen joatea.

# Urgara Txingudi kluba waterpoloa zabaltzeko eta sustatzeko asmotik sortu da

**Irunen Urgara Txingudi izeneko waterpolo klub bat sortu da. Kirol klub berri hori gizonezkoen zein emakumezkoen waterpoloa sustatzeaz arduratuko da. Waterpolo atala Bidasoa XXI klubak kudeatzen zuen orain arte. Ana Olazabal Urgara Txingudi klubeko lehendakariak laburbildu du hiriko kirol entitate berri honen sorrerako lehen pausoak nolakoak izan diren.**

**Nondik dator Urgara Txingudi klubaren sorrera?**
Lehen, waterpolo atala Bidasoa XXI klubaren barruan zegoen, igeriketa atalaz gain, klubak master eta waterpolo atalak ere kudeatzen baitzituen. Egia da pandemiaren gaiak eragina izan duela kirol-klubetan, bai ekonomikoki, bai logistikoki. Waterpoloko atalak bere kabuz funtzionatu ahal izateko ideia urrundik dator, gastu eta sarrerei dagokienez buruaskiak izan ahal izateko eta, horrela, sekzioa hobeto kontrolatu ahal izateko. Hiru kirol erabat ezberdinak dira, ez bakarrik kirol arloan. Federazioek modu ezberdinean funtzionatzen dute, arbitrajea modu ezberdinean egiten da, partiden antolaketak ez du zerikusirik... Azken batean, konturatu ginen garaia iritsia zela bakoitzak bere bidea egin zezan.

**Erraza izan da kirol klub berri bat ia zerotik sortzea?**
Ez da batere erraza izan, eta gauzatu ahal izan dugu, pertsona askok egin baitute bat proiektu berri honekin. Bidasoa XXIeko waterpoloko familiei ideiaren berri eman zitzaien eta familia gehienen babesa izan dugu. Lau gara Bidasoako aurreko batzarreko kideak, baina, jakina, klub baten kudeaketak askoz ere lan gehiago eskatzen du, eta zorionez klubeko beste guraso batzuek ere laguntza eskaini digute. Jende horri guztiari esker kluba aurrera ateratzen ari gara. Boluntarioen artean abokatu bat dugu, aholkulari bat, bankuen gaia kontrolatzen duen jendea... laburbilduz, esparru desberdinetako ezagutzak dituen jendea da, eta horrek lana eramangarriagoa izaten laguntzen du. Gainera, garrantzitsua iruditzen zaigu kluba osatzen duten gurasoen babesa izatea.

**Kirolari gehienak Bidasoa XXIetik Urgara Txingudira pasa dira?**
Bai, hala izan da. Oraintxe bertan klubean 60 kirolari inguru ibiliko garela uste dut. Guztira, 46 familiak osatzen dute kluba, baina kontuan izan behar dugu familia baten barruan, kasu askotan, hainbat kidek jokatzen dutela klubean. Gainera, irailean ate irekien jardunaldi batzuk antolatu genituen eta horri esker 7 neska-mutil berri gehitu zaizkio klubari. Pozik gaude, jende gutxi bereizi baita klubetik aldaketaren ildotik.

**Zenbat talde dituzue klubaren barnean?**
Eskola-taldea daukagu, arrainkume eta benjaminez osatua, hau da, 2010 eta 2013 artean jaiotako neska-mutilez. Haurren kategoria mistoa da, ez baitago talde bereizketarik eta 2008an eta 2009an jaiotako neska-mutilak dira. Ondoren, kadete talde mistoak izango genituzke, absolutu femeninoa eta absolutu maskulinoa. Guztira sei talde dauzkagu egun.

**Nolakoa izan da Urgara Txingudi klubaren lehen denboraldi hasiera?**
Irailaren lehen hamabostaldian ate irekien jardunaldiak antolatu ahal izan genituen igerilekuetan. Hala ere, irailean Artalekuko eta Azken Portuko igerilekuak bi astez ixten dira mantentze-lanengatik, eta, beraz, lehen entrenamenduak lehorrean egin behar izan ditugu. Talde batzuek hondartzan entrenatzeko aprobetxatu dute, eta gainerakoek gimnasioan jarraitu dute lanean. Infantil eta eskola taldeak joan den hilean igerilekuan entrenatu zuten bakarrak izan dira. Urriaren 1ean hasi zen entrenamenduekin modu ofizialean, orduan bai, ur barruan.

**Noiz dauzkazue lehen txapelketa edo partiduak?**
Lehen partidak urriaren 23 eta 24ko asteburuan ditugu, senior gizonezkoetan zein emakumezkoetan. Gainerako kategoriak geroxeago hasten dira.

**Nola egin diote aurre jokalariek klub aldaketari?**
Egia esan, oso ondo joan da dena. Egia da badakigula bide zaila dela aurrera egin ahal izateko egin beharreko bidea, ekonomikoki gurasoen esku baitago. Lizentziek, ekipamendu-aldaketek edo igerilekuaren alokairuak dakartzaten gastuei aurre egin behar zaie. Bidasoan, adibidez, ordu gehiago entrenatzen ziren igerilekuan, baina kontuan izan behar da ordu horiek guztiak ordaindu egin behar direla. Horregatik, igerilekuko orduen kostua murriztu behar izan dugu, entrenamendu-jardunaldiak murriztuz. Tokiko alderdien kasuan, arbitrajeak ere kostu handia dakar. Horrek guztiak gastuak gehitzen ditu, eta ditugun baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen ari gara. Orain kanpaina bat hasiko dugu laguntzaileak eta babesleak lortzeko, lortzen dugun guztia jokalarien onurarako izango baita. Adibidez, lizentziak lortzearen gaia nahiko aurreratuta daukagu. Esan beharra dago denok boluntarioak garela eta ez dugula biltzeko bulego edo espazio fisikorik, baina dena ataletan banatuta daukagu, gurasoek etxetik kudeatzea errazagoa izan dadin.

**Hori guztia, eskualdean waterpoloa ezagutarazten duzuen bitartean, ezta?**
Hala da. Waterpoloa kirol minoritarioa da, batez ere nesken kasuan. Irunen waterpoloko klub bat dagoela esaten duzunean, jende asko harritu egiten da. Oraindik ere jende askok ez du waterpoloa emakumezkoen kirolarekin lotzen. Azken urteetan Bidasoa XXI taldean aritu den emakumezkoen taldeak Euskal Herriko Liga eta Kopa irabaztea lortu du. Badakigu trantsizio-urtea izango dela eta pixkanaka joango garela. Klub berri honen sorrerak waterpoloak eskualdean aurrera egiten jarraitzea eta neska-mutilek jokatzen jarraitzeko aukera izatea ahalbidetuko du. Pixkanaka-pixkanaka, hazten joan nahi dugu, eta gure norabide berean joan nahi duen askoz jende gehiago batu. Ilusio handia dugu kirolariek waterpoloaz gozatzen jarraitzen dutela ikusteko. Baina, zalantzarik gabe, ezinbestekoa izango da aurrera egin ahal izateko behar besteko ikusgarritasuna eta laguntza izatea.

# Barduliar soldaduak laster Oiasso Museoan

**Antzinateko egungo Gipuzkoako lurraldean erromatarrek hiru herri identifikatu zituzten, karistiarrak, barduliarrak eta baskoiak. Erromatar Inperioaren lehendabiziko mendeetan bizi izan ziren zenbait geografo eta intelektualen arabera, Estrabon, Plinio Zaharra eta Klaudio Ptolomeo kasu, karistiarrak mendebaldean zeuden, Deba ibaia izanik barduliarrekiko muga. Azken hauen ekialdeko bizilagunak baskoiak ziren eta bien arteko eremua Gipuzkoan Urumea edo Oiartzun ibaiak erabakiko luke. Beraz, Bidasoaldea baskoien eskualdearen barnean zegoen.**

Hegoalderantz, barduliarren lurraldea ekialdeko arabar lautadara eta Trebiñoraino luzatzen zen eta topaturiko erromatar garaiko inskripzio batzuk medio, bailara nafar batzuk, Lana eta Burunda tartean, barduliar esparruan sartuko zirela uste da. Kontuan izan beharra dugu muga hauek deskribatzen dituzten iturri idatzi hauek lurraldearen konkista eta gero idatziak izan zirela. Ondorioz, bertan jasotako informazioa ezin da guztiz fidagarritzat hartu garai aurre-erromatarreko egoera nolakoa zen ezagutzeko.

Oraingo honetan barduliarren inguruan hitz eginen dugu, laster Oiasso Museoan izanen dugun erakusketa bati loturik daudelako. Eskualde barduliarra K.a. 19. urterako erromatar inperioaren parte zen eta badirudi modu baketsuan integratu zela, konkista gerrarik gabe. Erromatar Inperioa probintzietan antolatzen zen eta gure zonaldea Tarraconensis izeneko probintzian txertatu zen, Tarraco (Tarragona) izanik hiriburua. Orokorrean, erromatarrek civitas modura (hirigunea, civitates pluralean) antolatzen zituzten beren menpeko lurraldeak. Civitas hauek beren kontrolpean dermio zabal bat zuten, bertan basoak, ibaiak, zelaiak, mendiak eta bigarren mailako asentamendu txikiagoak bilduz. Plinioren esanetan, barduliarrak hamalau hirigune nagusitan banatu ziren, baina ez ditugu guztien izenak ezagutzen. Autore grekolatindarrek gehien errepikatzen dituztenak Menosca (kostaldean, Getaria-Zarautz agian?) eta Alba (egungo Albeniz - Durruma inguruan) dira. Bidesarea ere egokitu zen, kostaldea lotzen zuen via maris bidea eta lautada arabarra zeharkatzen zuen Astorga-Bordele galtzada izanik barduliar lurraldeko komunikabide ardatz nagusiak. Bake erromatarrak eskaintzen zuen segurtasunak eta komunikabideen hobetze honek bertako jarduera ekonomikoentzat bultzada nabaria suposatu zuen, merkataritza izanik indar handiena lortu zuen sektoreetako bat.

Inperioko biztanle libre ororen helburu nagusienetako bat, jada berezkoa ez bazuen behintzat, hiritartasun erromatarra lortzea zen. Hiritartasun erromatarrak hainbat pribilejio eta erraztasun eskaintzen zituen egunerokotasunean, baina ez zen batere erraza hori lortzea. Litekeena zen autoritate erromatarrek civitas bat edo probintzia oso bat hiritartasunarekin saritzea hala merezi zuela irizten bazion. Gisa honetara gertatu zen K.o. 74. urtean, Vespasiano enperadoreak Hispaniako probintziak hiritartasun latindarrarekin saritu zituenean urte gutxi lehenago suertatutako guda zibilean eskainitako laguntzagatik. Hiritartasun latindarra erdibideko estatus bat zen eta zenbait pribilejio eskaintzen zituen, baina ez hiritartasun erromatarrak adina. Izaera latindarra izanik, dirudunek erromatar hiritartasuna lortu ahal zuten urte betez civitas-eko udal kargu bat betez. Herri xeheak ordea, zailago zuen gauza bera egitea eta, gehienetan, geratzen zitzaion irtenbide bakarra armadan izena ematea zen.

Herri indigenetako gizonen erreklutamendua bultzatzea Erromaren jarrera ohikoenetako bat izan zen. K.o. I. mende bukaerako zenbait inskripziok barduliar jatorriko soldaduz osaturiko unitate militar baten berri ematen digute, Cohors I Fida Vardullorum deitua. Kohorte laguntzaile hauek 600 bat gizonez zeuden osaturik eta 25 urteko zerbitzua bete behar zuten hiritartasun erromatarra lortu ahal izateko. Ikusten dugun Fida (leial) goitizena kohorte honetako gizonek aurrera eramandako ekintza arrakastatsu baten ondorioz lortuko zuen ziurrenik. Barduliarren unitate militar honek Britannia iparraldean igaro zituen bere urte gehienak Hadrianoren Harresiaren babes lanetan. K.o. 253. urtean datatutako inskripzio batek ematen digu kohorte honen existentziaren azken aipamena. Dena den, ezin dugu ahantzi kohorteari izena eman zioten jatorri barduliarreko soldaduak lehendabiziko generaziokoak soilik izanen zirela, haiek hil edo lizentziatzerakoan kanpamendu militarretik gertu bizi ziren gizonak erreklutatuz betetzen baitziren haien postuak, kasu honetan Britainia iparraldeko biztanleak. Oiasso Museoan egun gutxiren buruan izanen dugu soldadu hauen berri emanen digun erakusketa bat, adi egon gure jakinarazpenei!

**Jokin Lanz**

# ELATZETA LH2




# Denbora-pasak

**7 hitz: Arrainak**

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | E | G | A | T | Z | V | I | J | W | J | T | P | A |
| D | G | I | W | E | L | L | N | Q | L | Z | C | V | T |
| Z | V | I | H | T | O | Y | N | N | P | A | Z | G | D |
| L | G | Q | I | Z | O | K | I | N | W | V | Q | P | C |
| L | C | O | P | L | A | Y | R | W | A | B | L | K | J |
| P | I | W | B | I | S | I | G | U | L | K | N | E | B |
| R | W | A | K | V | G | R | N | B | U | B | C | U | B |
| Z | F | J | K | I | F | X | M | M | C | H | P | Y | M |
| B | O | G | V | Z | X | N | K | M | M | S | U | C | S |
| U | H | E | G | A | L | U | Z | E | C | L | U | K | W |
| W | X | A | B | A | K | A | I | L | O | R | L | F | Y |
| W | M | Z | S | C | P | U | A | N | T | X | O | A | E |
| E | A | M | U | A | R | R | A | I | N | C | Y | X | I |
| P | J | H | G | P | I | F | W | E | H | D | I | J | B |

Legatz, amuarrain, bisigu, antxoa, izokin, bakailo, hegaluze.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 5 | | 7 | 4 | |
| 3 | 6 | | 4 | 8 | | 9 | 1 | |
| | 7 | | | | 1 | | 8 | |
| 1 | | | | | 9 | | | |
| | | 3 | 8 | | | | | 5 |
| 8 | 9 | | 5 | 3 | 4 | 1 | | |
| | | 9 | | | | | | |
| | | | 6 | | | | | 4 |
| 4 | | | 1 | | 8 | 6 | | |

# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

## Axeri baten istoriyua

Axeri batek artzayari esantziyon:

– Artzaiko, bildotsa jan diet.

Artzayak makilla sartu soluan

– O artzaya! Oaiñ kota badiet.

Artzayak kendu makilla eta txingurriyak bota.

– O! azkuria nien eta ederki eittentziatek.

Txingurriyak kendu eta sua eiñ.

– O! Otzak negoken eta ederki berotu nak.

Axeriya da malizi askokua.
"Orrek azeri zarrak baino malizi gehiago din"

Irungo Kateako R.S.A. andereari jasoa (1959ko uda).
Amari ikasi zion.

(El Bidasoa, 1959-X-31).

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga**
**Euskaraz, Irunen barrena**

# TOKI ALAI DBH1

## ZUZENDARI KASKARRA

Bazen behin, Ane izeneko 12 urteko neskato bat. Aneri izugarri gustatzen zitzaion futbolean aritzea. Baina arazo bat zuen. Eskolak futbol talde bat zeukan; arazoa zen lehen han jokatzen zuela, baina zuzendari berriaren erruz, neskek jolasteari utzi behar izan zioten, debekatu egin baitzuten. Behin eta berriz esan, esan eta esan, baina ez zuen ezertarako ere balio izaten, bere horretan jarraitzen zuen, zuzendariak ez zuen amore ematen: ezetz esaten zion.

Eskolatik ateratzen zenetan, Anek inbidia sentitzen zuen. Mutil guztiak jolasean aritzen ikusten zituen, eta bera, inbidiak jota.

Halako egun batean, ordea, egoera aldatu beharra zeukala bururatu zitzaion. Anek ideia bat proposatu zien bere gelako ikaskideei:

-Zer iruditzen zaizue zuzendariaren kontra jartzen bagara, eta neskok jolasteko eskubidea lortzen badugu? -denak ados jarri, eta eskola amaitzean, zuzendariari kexaka joan zitzaizkion. Ez zuen ezertarako ere balio izan; izan ere, zuzendariak, beti bezala, denen kontra jarraitzen zuen. Bi egunen buruan, entrenamenduaren egunean, taldeko kapitainari ideia bat bururatu zitzaion, ordea:

-Eta eskola bukatzen denean, entrenamendura joan ordez, bakoitza bere etxera badoa? Zuzendariari ez zaio batere gustatuko!

Denen erantzuna hau izan zen:

-Ideia bikaina!!!

Esan eta egin.

Hurrengo egunean, zuzendaria gelan agertu, eta amorruaren amorruz, hau esan zuen:

-Baina ez zaudete burutik sano! Zer dela-eta huts egin duzue entrenamentuan?

Eta hauek izan ziren ikasle guztien erantzunak:

-Neskek gure taldean jokatzeko eskubidea lortu arte, ez gara, mutilok, ez entrenamenduetan, ez partiduetan agertuko.

Zuzendariak ez zuen beste aukerarik izan eta taldean neskak onartu zituen handik aurrera.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Toki Alaiko plazan.

Leire Etxabe. Toki Alai 1C

# Alabama Banana: Arroparekin kalera ateratzen den artea

**Haizea Sayar da Alabama Banana markaren sortzailea. Artea eta moda jasangarria uztartuz, "janzten den artea" kontzeptua garatu du. Gainera, orain dela gutxi Netflix enpresaren enkargu bat jaso du pelikula baten estreinaldirako jakak sortzeko. Haizea Sayar sortzaileak bere proiektuaren nondik norakoak azaldu ditu.**

**Nola sortu zitzaizun Netflixekin lan egiteko aukera?**
Udaran Irunera itzuli nintzen, nire gurasoak Urruñan bizi direlako. Gurasoekin bazkaltzen ari nintzen egun batean, agentzia bat nirekin kontaktuan jarri zen Instagram eta email bidez. Hasiera batean nirekin hitz egin nahi zutela esan zidaten, haien bezero garrantzitsuenetako batentzat lan egiteko aukera proposatu nahi zidatelako. Aurrerago Netflixentzat zela azaldu zidaten eta Elisabet Benavent idazlearen liburuetan oinarritutako "Fuimos canciones" pelikularekin loturik 35 jaka sortzea proposatu zidaten. Enkargua entzun eta garrasika hasi nintzen, asko poztu nintzen eta.

**Proposamena une hobezinean iritsi zitzaizun?**
Bai, duela 4 urte inguru sortu nuen Alabama Banana marka. Orain arte arropa denda batean lan egin dut, baina ez nintzen batere eroso aurkitzen. Orain dela hilabete batzuk dendari lana uztea erabaki nuen, nire kabuz bide berri bati ekiteko. Izan ere, argi eta garbi nuen nire pasioa nik sortutako markarentzat lan egitea zela, jantziak margotzen.

**Erraza da Netflix bezalako marka handi batentzat lan egitea?**
Bai, aldea nahiko handia da. Orain dela urte batzuk Levis markarentzako proiektu batean lan egiteko aukera izan nuen eta sekulakoa izan zen. Apirilean hasi nintzen ehuneko ehunean soilik nire marka aurrera ateratzeko lanean. Inguruko jendeak aspaldidik pausua eman eta nire proiektuan zentratzeko animoak ematen zizkidaten, baina nik orduan ez nuen guztiz argi ikusten. Netflix bezalako marka ezagun batekin elkarlanean aritzeko aukerak asko lagundu nau, egiten dudanak zentzua duela ikusi eta proiektuarekin aurrera jarraitzeko motibazioa lortzeko.

**35 jaka sortu behar izan zenituen. Diseinuak aukeratzeko askatasuna eman zizuten?**
Bai, jakak egin nahi zituztela esan zidaten eta proposamen libre bat egiteko askatasun osoa eman zidaten. Hala ere, pelikulako Macarena, Maca, protagonistan inspiratutako zerbaiten bila ari zirela esan zidaten. Nik jada liburuak irakurrita neuzkan, idazle horren liburu ia guztiak irakurri ditudalako kasualitatez. Proiektua niretzat egina zegoela ulertu nuen, testuingurua ezagutzen nuen. Normalean jaka bakeroekin lan egiten dut, beraz, amerikanak margotzea erronka bat izan zen niretzat eta gustura onartu nuen. Haiekin diseinua egokitu nuen eta aldaketa pare baten ostean, dena prest izan genuen.

**Zergatik erabaki zenuen Alabama Banana izeneko marka sortzea?**
2017. urtearen inguruan hasi zen dena. Nik urte asko daramatzat ohialetan margotzen. Zaletasun gisa hasi zen dena eta orain dela 4 urte jaka bakeroak margotzen hasi nintzen, hemen oso zabalduta ez zegoen zerbait zelako. Oso erakargarria iruditu zitzaidan arropan artelanak sortzeko ideia, kalera eramateko prestatutako artea balitz bezala. Orain dela 11 urte jada kamiseta edo zapatilaren bat margotzen hasi nintzen, baina geroago ikusi nuen jaka bakeroak aukera bikaina zirela, ia mundu guztiaren armairuan dagoen jantzi bat delako. Asko gustatzen zaizun ilustrazio bat kalean erakusteko aukera ematen dizu, etxeko lau pareten artean gorde ordez. Horregatik erabaki nuen marka bat sortzea, bestelako produktuak dauzkadan arren, gehien saltzen direnak jakak direlako.

**Jakez gainera, zein beste produktutan marrazten dituzu zure artelanak?**
Zapatilak, kamisetak,... margotu izan ditut, baina jakak margotzea nahiago dudala konturatu naiz. Marka nik bakarrik kudeatzen dudanez, ez dut proiektu gehiegitan murgiltzeko aukerarik, jendearen enkarguek denbora asko hartzen didatelako. Bezeroentzat berezia da sormen prozesuaren parte direla sentitzea, beren ideiak eta proposamenak jasotzen baititut lanean hasi aurretik. Nire diseinuak dira, baina bezeroek emandako erreferentziak abiapuntutzat hartuta. Askotan film edo telesailekin lotutako ideiak proposatzen dizkidate. Nik dena delakoa arakatu eta diseinu proposamen bat aurkezten diot bezeroari, lanari ekin aurretik. Dena den, pertsonen argazkiak ere bidali ohi dizkidate, diseinuak ukitu pertsonalizatu hori izan dezan.

**Era berean, arropak berrerabiltzeko modu bat da?**
Bai, noski. Garrantzi handia du niretzat proiektuaren alde horrek. Nire diseinuak sortzeko "vintage" erako arropak erabiltzen ditut, beraz, bigarren eskuko arropak izan ohi dira. Iraunkortasunaren papera oso garrantzitsua da markan.

**Gainera, udaran Irungo Kontenporanea azokan parte hartu zenuen. Nolakoa izan zen esperientzia?**
Nire sorkuntzak erakusten ditudanean, jendeari asko gustatzen zaio egiten dudana. Jendeak gauza berriak deskubritzea gogoko du. Dena den, egia da Madril edo bestelako azoketan parte hartu izan dudala eta jendea horrelako tokietan ohituago dago azoketan ibiltzera. Izan ere, jendeak hemen ez du hainbeste hurbiltzeko ohiturarik, lotsatuta hurbiltzen da, beraz, ohitura hori hartzea falta da. Hemen mahaian txartelak uzten dituzu, baina jendeak ez ditu hartzen. Madrilen, aldiz, jendea irekiagoa da eta, nahiz eta ez erosi, gauza gehiago galdetzen dizkizute.

**Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?**
Alabama Banana marka lantzen jarraituko dut, iristen zaizkidan enkargu guztiei erantzunez. Horretaz gain, Madrilen hainbat tailer antolatzeko aukera eman didate, oihalak nola margotzen diren erakusteko. Hortaz, tailer horietan jendeak nola lan egiten dudan ikasteko aukera izango du.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Gaztelekua urrian

Irungo Martindozenea Gaztelekuak urriko bigarren hamabostaldirako programazioa iragarri du jada. Iragarritako ekintza guztiak Gaztelekuan bertan egingo dira eta doakoak izango dira, jardueren hasierako ordutegia egunaren arabera desberdina izango bada ere. Ekintzetan izena emateko Gaztelekura hurbiltzea, 690706471 WhatsAppERA, Instagramera edo korreora mezu bidaltzea beharrezkoa izango da.

– Urriak 15: Futbolin txapelketa (17:30)

– Urriak 16: Tote Bag Tailerra (17:00)

– Urriak 21: Just Dance (17:30)

– Urriak 22: Henna Tatuaia Tailerra (17:30)

– Urriak 23: Gazteartean Kontzertuak
– Urriak 28: Poker Dados (17:30)

– Urriak 29: Halloweeneko Gailetak (17:30)

– Urriak 30: Zauri Tailerra ( 17:00-18:00/18:00-19:00)

## TREBA Gazteak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak antolatutako prestakuntza-eskaintza.

Modu batean edo bestean trebatzeko diren hainbat jarduera antolatzen dira formatu anitzetan (ikastaroak, topaguneak, hitzaldiak…) eta askotariko hartzaileentzat.

**Hartzaileak:**

– Haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko teknikari eta zerbitzuetako hezitzaileentzako prestakuntza-eskaintza.

– 18-30 urte bitarteko Gipuzkoako gazteentzako ahalduntze-eskola.

– Haur, nerabe eta gazteen beharrekin lotutako gaiei buruzko eztabaida eta sentsibilizaziorako topagunea.

– Guraso eta familientzako hitzaldi eta tailerrak.

TREBA Gazteak

## Badabidebat

Bultzada bat behar duzu erabaki garrantzitsu bat hartzeko?

Gipuzkoako gazteei beren zailtasunei (pertsonalak, sozialak, familiakoak, lanekoak edo ikasketetakoak, etab.) aurre egiten doan eta modu anonimoan laguntzen esperientzia luzea duen zerbitzua.

Tresnak eta baliabideak eman nahi dizkizugu, zure egoerari aurre egiteko gai izan zaitezen eta aurrera jarrai dezazun.

**Norentzat da?**
BadaBideBat 18 urtetik gorako gazteentzat da, sexua, jatorria, identitate/aniztasun sexuala edo erlijioa kontuan hartu gabe; entzunak sentitzeko, kezkak partekatzeko eta/edo erabakiak hartzeko premia duen edonorentzat.

**Nola kontaktatu?**

Nola nahi duzu hitz egin? Aukeratu nola sentituko zaren gustora. Gogoratu doakoa eta anonimoa dela.

– Txata

– E-maila: kaixo@badabidebat.eus

– Whatsapp: 747 421 720

– Doako telefonoa: 900 840 335 (astelehenetik ostiralera: 10:30-13:30)

BADABIDEBAT

## Gazte aurrekontu parte-hartzaileen bozketa

Prozesu orokorraren eta gazte prozesuaren (16 urtetik 30 urtera bitarteko gazteentzako prozesuaren) barruko proposamen finalistak udal webgunean kontsultatu daitezke dagoeneko.

Urriaren 13tik 19ra bitartean proposamen finalisten artean irabazleak aukeratzeko bozketa egingo da herritarren artean.

**Bozketa**
Irun Txartela duten guztiek parte hartu ahalko dute, udal webgunearen bidez, www.irun.org helbidean, eta beharrezkoa dutenek Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren laguntza izango dute eskura; horretarako, hitzordua eskatu beharko dute, urriaren 15etik 19ra bitartean. Azken bozketaren hasieran, proposamen guztiek 0 boto izango dute; alegia, aurreko bozketa fasean emandako botoak ez dira hartuko kontuan. Bost proposamen aukeratu ahalko dira gehienez ere, baina baturak prozesurako finkatutako muga ekonomikoaren barruan egon beharko du. Bozketaren emaitzak denbora errealean ikusi ahalko dira, eta noiznahi kontsultatu ahalko dira.

## Eurodesk

Gazteen mugikortasunerako informazioa eskaintzen du.

Hauek nabarmentzen dira: prestakuntzarako aukerak eta Europako batzordeko hainbat erakundetan praktika egiteko aukera.

Hilero buletin bat argitaratzen da.

Aukera hauek guztiak eta gehiago www.eurodesk.es webgunean aurkituko dituzu.

Eurodesk Espainian gazteen esanetara daude kontsulta guztiak erantzuteko.

Zalantzak argitzeko posta elektroniko honetara idatzi behar da: eurodesk@injuve.es




# Urriak

## 17

### Kontzertua

**Zer:** Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 12:30etan.

**Sarrerak:** Gonbidapenarekin.

**Gonbidapenak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## 17

### Bizinema

**Zer:** "Priscilla, reina del desierto" eta "Una Jaula de Grillos" filmen emankizuna .

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 17:00etan.

**Prezioa:** Dohainik.

**Gonbidapenak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## 20

### Antzerkia

**Zer:** "La mirada del otro" antzezlana, Proyecto 43-2 konpainiaren eskutik.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Prezioa:** 4,50 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## 24

### Kontzertua

**Zer:** Pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren, Náyade abesbatza agertokietara itzuliko da, hainbat kolaboratzaile izango dituen kontzertu berezi batekin.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrerak:** Doan, gonbidapenarekin.

**Gonbidapenak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## 30

### Kontzertua

**Zer:** Petti eta etxeko uzta eta Incarnatus orkestra, Eneritz Furyaken irekierarekin. "Manipulazio estrategiak" diskoaren aurkezpen-kontzertua da.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Prezioa:** 7,50 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## 31

### Zinema animazioarekin

**Zer:** Zinema saio bikoitza, ET eta Bitelchus filmen emankizunarekin.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 18:00etan.

**Prezioa:** 5,50 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

**Hizkuntza:** Jatorrizko hizkuntzan emango dira.

## Denbora-pasen emaitzak

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | E | G | A | T | Z | V | I | J | W | J | T | P | A |
| D | G | I | W | E | L | L | N | O | L | Z | C | V | T |
| Z | V | I | H | T | O | Y | N | N | P | A | Z | G | D |
| L | G | O | I | Z | O | K | I | N | W | V | O | P | C |
| L | C | O | P | L | A | Y | R | W | A | B | L | K | J |
| P | I | W | B | I | S | I | G | U | L | K | N | E | B |
| R | W | A | K | V | G | R | N | B | U | B | C | U | B |
| Z | F | J | K | I | F | X | M | M | C | H | P | Y | M |
| B | O | G | V | Z | X | N | K | M | M | S | U | C | S |
| U | H | E | G | A | L | U | Z | E | C | L | U | K | W |
| W | X | A | B | A | K | A | I | L | O | R | L | F | Y |
| W | M | Z | S | C | P | U | A | N | T | X | O | A | E |
| E | A | M | U | A | R | R | A | I | N | C | Y | X | I |
| P | J | H | G | P | I | F | W | E | H | D | I | J | B |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 1 | 8 | 3 | 5 | 2 | 7 | 4 | 6 |
| 3 | 6 | 5 | 4 | 8 | 7 | 9 | 1 | 2 |
| 2 | 7 | 4 | 9 | 6 | 1 | 5 | 8 | 3 |
| 1 | 5 | 6 | 2 | 7 | 9 | 4 | 3 | 8 |
| 7 | 4 | 3 | 8 | 1 | 6 | 2 | 9 | 5 |
| 8 | 9 | 2 | 5 | 3 | 4 | 1 | 6 | 7 |
| 6 | 8 | 9 | 7 | 4 | 5 | 3 | 2 | 1 |
| 5 | 2 | 1 | 6 | 9 | 3 | 8 | 7 | 4 |
| 4 | 3 | 7 | 1 | 2 | 8 | 6 | 5 | 9 |

LOS MUÑECOS DE LA TARTA

# V Ezkontza azoka

## Urriak 16 eta 17

**FICOBA erakustazokan**

**PARKING DOAN!**

www.losmunecosdelatarta.es

Kolaboratzaileak:

FICOBA

bidaShop

irun on